


Euskal AEko industria-prezioak % 0,5 igo dira 2021eko azaroan aurreko hilaren aldean

2020ko azaroarekin alderatuta, industriako prezioek % 12,2 egin dute gora

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak % 0,5 igo dira 2021eko azaroan aurreko hilaren aldean. Azaroko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 12,2koa izan da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa xeheago batek agerian uzten du ezen 2021eko azaroan honako sektore hauek izan dituztela prezioetako hazkunderik handienak aurreko hilaren aldean: *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 2,9), *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 2,4) eta *Zuraren, paperaren eta arte grafikoaren industria* (% 1,0). Aitzitik, hilabete arteko prezioetan jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak hauexek izan dira: *Erauzketa-industriak* (% 3,9ko jaitsiera), *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* (% 3,9ko jaitsiera) eta *Kokeriak eta petrolioaren fintzea zein Ura* (% 0,3ko jaitsiera bietan).

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraikiz, prezioen aldaketak askotarikoak izan dira aurreko hilaren aldean. *Bitarteko ondasunen* prezioak % 1,8 igo dira, eta *Ekipo-ondasunenak* % 1,4. Aitzitik, *Energiaren* prezioek % 2,3 egin dute behera, eta *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 0,2, ezen *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioek % 0,2 behera egin dute, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 0,2 gora.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). Azaroa 2021

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	113,7	0,5	12,2
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	103,7	-3,9	-1,1
Manufaktura-industria	113,5	1,3	10,9
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	108,8	-0,1	1,9
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	104,6	0,0	-2,9
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	112,7	1,0	9,6
Kokeak eta petroloa fintzen	127,2	-0,3	48,8
Industria kimikoa	122,7	0,8	13,9
Botiken fabrikazioa	111,5	0,0	2,1
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	101,4	0,3	2,8
Metalurgia eta produktu metalikoak	119,6	2,9	15,2
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	114,4	-0,2	7,3
Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa	107,4	-0,1	2,5
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	105,9	0,3	2,5
Garraioko materialen fabrikazioa	106,3	2,4	-2,2
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	109,1	0,2	2,7
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	115,6	-3,9	21,3
Ura	112,2	-0,3	2,6
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	109,5	-0,2	2,2
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	106,9	0,2	2,6
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	109,9	-0,2	2,2
Ekipo-ondasunak	109,7	1,4	1,5
Bitarteko ondasunak	113,5	1,8	10,4
Energia	123,9	-2,3	37,1

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2021eko Abenduaren 20a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Urte arteko terminoetan (2021eko azaroa, 2020koaren aldean), prezio-hazkunderik handienak adar hauetan izan dira: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 48,8ko igoera), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 21,3ko igoera) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 15,2ko igoera). Alderantzizko noranzkoan, hauen prezioak jaitsi dira: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 2,9 behera), *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 2,2ko jaitsiera) eta *Erauzketa-industriak* (% 1,1 behera).

Helburu ekonomikoaren arabera ondaren talde handien prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da denentzat: *Energiarenak* % 37,1 igo dira, *Bitarteko ondasunenak* % 10,4 eta *Ekipa-ondasunenak* % 1,5. *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 2,2 igo dira, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak % 2,6 igo direlako eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrenak* % 2,2.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62